


XXXVII. urtea
100 - 2005



FONTES LINGVÆ VASCONVM

STVDIA ET DOCUMENTA

**Bakaikuko euskal hitzak,
esaerak etab.**

Frantzisko Ondarra Erdozia

Bakaikuko euskal hitzak, esaerak etab.

FRANTZISKO ONDARRA*

Bakaikun, Nafarroako Burunda ibarrean -Sakanan- kokatua dagoen herriko euskal gaiak eskaintzen dira hemen. Ez dira izan sistematikoki bilduak, baizik eta tarteka, familiaren etxeko sukaldean batez ere. Jatorrizko bilketa lana zenbait agenda eta bloketan gorderik dugu: 1. *Bakaiku, 1951ko paperak*; 2. *Agenda Banco de Vizcaya, 1967*; 3. *Agenda Banco de Vizcaya, 1969*; 4. *Block de Notas*; 5. *Block Notas Excelsa*; 6. *Agenda Lekaroz, 1964-1965* ikasturtekoa. Guztia argitaratu gabe dago, salbuespen bakarra *Block de Notas* deituan daukaguna dela. Bertako gehiena 1965ean BAP-n eman genuen.

Lana bi zatitan dago partitua, hurrengo paragrafoetan azaltzen den bezala.

Bertan, BAP 1965ean argitaratuen ondotik bildu genituenak ematen ditugu, eta 1969-XII-27a arte jasotakoak dira, data horretan idazmakinez ezartzea eta alfabetoz ipintzea bukatu genuela. Erantsi ditugu 1951ko lehen hiru hilabeteetan hartutako zenbait kontu, eta horietan ageri diren hitz jakingarrionak alfabeto berean paratu ditugu.

Maria Erdozia Baztarrিকা (Bakaiku, 1896-XII-18, Iruñea, 1977-IV-24) eta Maria Kruz (MK) Ondarra Erdozia (Bakaiku, 1927-VIII-26, Iruñea, 1971-IXetik aurrera) –nire ama eta arreba– dira informatzaile nagusiak. Noizean behin izan dugu gure familatik kanpoko laguntzailerik. Frantziska Fernandez Baztarrikari zor dizkiogu hiztegiko *etorri* “etor zien”, *izotz*, *mesede* eta *zagi-zuri*; Teresa Fernandez Baztarrikari *bela* eta *miru*; Mari Paula Ondarrari, Joxe Mari Larratzaren andrea, *gutxîn* ‘gutxi in’; Iturmendiko Antonio Eskisabel Otamendiri, artzaia, *aparneka*, *illarre-sulso* eta *urri-ziza*; Larraun ibarreko Alli herrikoa zen Fr. Feliz Allikoari, anaia kaputxinoa (Manuel Artola Zelaia, Alli, 1878-VIII-14, Iruñea, 1970-II-14), *aurrekoa*. Kaputxinoen Donostiako komentuan kontaktzen zuen hori, 91 bat urte zituela. Frantziska, Teresa eta nire ama lehengusu propioak zi-

* Frantzisko edo Patxi Ondarra bakaikuar euskaltzaina aurtengo uztailaren hogeita hamarrean hil zen, bera bizi zen Iruñeko Errotazar kaleko kaputxinoen komentuan egin zuen eroriaren ondorioz. *Fontes*-en artikulua franko argitaratu ditu; orain kaleratzen dugun hau zendu aurretik helarazi zigun, argitara eman genezan. Aldizkari honek pozik betetzen du haren nahia. Ez du, damurik, lana ikusteko aukerarik izanen. Goian bego.

ren, hiruak Baztarrika, denak gutxi gorabehera adin batekoak. Teresaren senarra Bautista Antso zen, Ana Maria Etxaideren informatzailea.

Hemen, 1969 urteko abenduko azken egunetatik 1975 urtea artekoak daude, eta 1976-IV-26ko hiru esararekin amaitzen da: *Asiék gosién, Bésten minák* eta *Txiki nítzan*. Hauek izan ziren amaren ahotik, 79 urteko zela, jasotako azken gaiak. Gehienak 1970ekoak dira, kontuak berriz 1972aren ingurukoak.

Etxekoen laguntasunaz gainera, beste zenbaitena ere izan genuen. Josefa Erdozia izebari, luzaro Bilbon neskame bizia, zor dizkiogu *balantzokan* eta *itufara*; Masima Erdozia izebari *ilko* “il 1” sarreran; Frantziska Fernandez Baztarrikari *bekela* eta *San Agustin, larraina musti*; eta Lorentza Aiestarani *bekela*. Josefa eta Masima nire amaren ahizpak ziren, eta Lorentza nire amaren anaia eta nire osaba zen Bizente Erdoziaren emaztea. Jose Antonio, Saturdino Erdozia edo Alkatezarraren aitari, zor zaio *aideko*.

Erantsi nahi dugu, nire *amak* gehien bat eta arrebak ere zerbait lagundurik, erantzun izan ahal geniela 1975ean Pedro de Yizarren galderei, eta *arrebaren* bidez –ama hilik– lagundu geniola 1980an Yizarri, berak behin baino gehiagotan aldarrikatu duen bezala. Une egokia izan daiteke hau *Erizkizundi Irukoitza-z* zerbait berri emateko. Bakaikuko inkesta Polikarpo Zarrantz Iraitzotz-koak egin zuen. 1924an izan zen hori, eta informatzailea Meltxora Sansón, 57 urtekoa, izan zen (Ana Maria Etxaide, *Erizkizundi Irukoitza, iker-3* (Mapak), 51). Gure etxearen ondoan bizi zen eta ezagutu nuen. Meltxoraren aita trenbideak Bakaikun zuen geltokiko lehen burua izan zen, kanpotarra.

EUSKAL GIROA BAKAIKUN GURE HAURTZAROAN

1925ean jaio eta herria 1937ko abuztuaren 25ean utzi genuelarik, garai horretakotzat jotzen ditugu hemen idazten ditugunak. Mutikoak euskaldunak ginen. Ama kanpotarra zuelako-edo, izan zitekeen salbuespenen bat. Txiletik 1964an itzuli ginenean, pozez oharitu ginen guk erdalduntzat ematen genuen lagun batek, ama kanpotarra, euskaraz bazekiela. Kalean ikasi zuela, esan zigun. Neskatoez ezin dugu gauza bera esan. Nire adineko batek niri *idiota* deitu, nik amari galdetu *idiota* zer zen, eta “ezertarako balio ez duena” zela erantzun amak.

Eskolan debekaturik, elizan irakasten zenean kristau ikasbidea, euskarazko eta erdarazko taldeak antolatu ziren. Egia esan, erdaraz irakasten zuten andereñoak Iruñean bizi ziren egotez eta familia abertzale oso ezagun batekoak ziren. Elizkizunak euskaraz egiten ziren.

Kalean erdal giro handia zegoen. *Sant'Ágeda, Sant'Ágeda, Sant'Ágeda andría, giltz'áundiyek artúta, zerúrako bidía* dago nire buruan gordea. Beste euskal gauzarik ez kalean, erdarazkoak asko samar. Hona hemen buruan ditugunak. 1. Bakaikuko mutilek, Errepublikako toki askotan gertatzen zen bezala: ¡*Viva el amor libre!* ¡*Viva Rusia!* etab. oihukatzen zuten Gaztelako erdaraz. 2. *Tengo un hambre que no veo, me comería un vagón, maquinista y fogonero y el jefe de la estación*, esaten zen. 3. *Kaxetera puñetera, saca pronto la bandera*. 4. *Vicente, como eres obediente, saca la lengua y aprieta los dientes*. 5. *Antonio Ratonio pasó por aquí, vendiendo ratones a maravedí*. 6. *Domi domi sordo, Fantxiko mokordo, se quita los moccos con un palo gordo*. 7. *Compañero, echa un cigarro, echa las piernas al aire. Si no nos quieren las mozas, ya nos meteremos fraile* (Alberto Azpiroz, Meltxoraren semearena. Kaputxino egin zen eta luzaro Arjentinan lan egin zuen). 8. Elizan kristau ikasbidea euskaraz irakatsi zigun Marina Lopez de Goikoetxeak, nire

lehengusua, honako errezu au, ez dakit non ikasia, erakutsi zigun gure etxeko euskal sukaldean: *Ángel de mi guarda, dulce compañía, no me desampares ni de noche ni de día. En el trance del agonía rezaré un padrenuestro y un avemaría.*

Guduarekin Errepublikan Nafarroan desagertu zenean, giroa okerragotu egin zen. Honelakoak kantarazten zizkiguten: *Impasible el alemán*, guk asmo txarrik gabe *imposible el alemán* kantatzen genuena; *si te dicen que caí*, gure-tako *si te dicen que Caín* zena.

Se prohíbe hablar el “vasco” en esta oficina. BACAICOA 398. *El Jefe Estacion.* V. Escudero irakurri genuen 1951 urtean Bakaikuko trenbideko itxoingelan. Bertan geundenoi esan zigunez, ez zuen hori politikagatik egiten. Gizabidezko gauza omen zen, berak euskaraz ez jakinik, han guztiek erdaraz, eta ez euskaraz, hitz egitea (*Diario de Noticias*, Bakaiku, 1951”, 2004 urteko ekainak 8).

GURE LANA

Hitzak eta beste entzun genituen bezala hartzen saiatu ginen 1951 urtetik hasita. Noizean behin azentua ere hartu izan dugu eta azentu marka ipini. Ez dugu erantsi *h* kontsonantea. Okerrak edo espero denetik kanpo ageri direnak gure arreta ezari zor zaizkie gehienetan. Hor sar daitezke ablatiboko *-tik*, normala *-ti* delarik, etab. Plazaratzen dena ez dugu egia hutsa balitz bezala ematen. Berriki egin dira Bakaikuko euskarari buruz lan mamitsuak, baina hala ere, duela 30 urte inguru eta lehenago ere bilduak jakingarriak direla uste dugu. Gogoan hartu *jain* ‘janen’ amak noizean behin erabilia eta *akura* ‘hura’ arrebak erabiltzen zuena.

Hiatoa oso gutxitan gertatzen da, normalean ez dago. 1. zatian “*estuó*” (*es-tu-ó*) bildu genuen, baina “*urde’ói*” (*ur-de’ói*) etab. 2.ean ere oso gutxitan bildu genuen: *atzeatu* (----), *beák* eta *beak* (--), *beatzén* (---), *bedratziurrena* (-----), *burukoazal* (-----), *etxeko-andre* (-----), *oazala* (----) eta *txéo* (---). Hori gerta ez dadin honelakoak aurkitzen dira: *buruba*, *eskub’au*, *marsuba*, *ogiya* etab., zenbait salbuespen badagoela gure datuetan: *eskuekin* (---), *marsuek* (--). Baina egiaz salbuespenak, ala gure arreta ezaren fruituak? Normalean honako hau dugu: *aurreako* (---), *gue* ‘gure’ (-), *guziek* (--) –gehienetan *guziyek*–, *esaeria* (---), *lenuó* (--), *basoá* ‘basorá’ (--), *taez* (-), *geo* (-) –edo *gio*–, *zeó* (-), *lastu’áu* (--), *arrijua* (---), *intenziyuek* (----), *galde’in* (--), *karga oná* (---), *kuidaduik* (---) etab. 1951koetan lehenbizi *geo*, ez *gio*, hartu genuen, eta *su(b)a* hitzeko *-b*-rekin zalantzak izan genituen.

Laburdurak: Ad. aditza, adb. adberbioa (aditzondo eta adizlagunak), adjetiboa (izenondo eta izenlagunak), aur. aurrizkia, erak. erakuslea, interj. interjekzioa, iz. izena, izord. izenordaina, junt. juntagailua (juntagailu eta lokailuak), part. partizipioa, postp. postposizioa, zenbtz. zenbatzailea.

I. ZATIA

HIZTEGIA

A

agin iz.: *Agin*. Ik. **ortz** eta **matagin**

ago iz.: *Aguá bidién eztó sasík. Ago ta girten: aizkora, kutxilu...* Ik. *Azkue*

aide iz.: Ik. *in* eta *izan*

aiek 1951 *erak.*: *Aiek biek*. Ik. **Axerko** ta **Otxoko**

aino iz.: *Artuek eta gariyek eta, beltz jartzen dienian ainua dekaí*

- aize iz.: *Aizia do guai*
 aizetu ad.: *Gaur eztu aizetu. Ik. Azkue: "Ventilar la casa"*
 aizetu ad.: *Gaur eztu aizetu. Ik. ipertu*
 akordatu ad.: *Ura denakin akordatzen (o azten) da. Ura gauza guziekin adordatzen (o azten) da. Ik. aztu*
 akura izord. 'hura': *Akura ainbatekua bada guria*
 al adb.: *San Pedro garagarrilekuek berotuko al gaitu. Geldituko al da*
 ala adb.: *Lengo fabrikari iten dau sobre lan. Alá're gvaikuén irauten dau*
 aldapa iz.: *Aldapá baikó zelairik ezto*
 alde 1951 iz.: - *Non 'noren' aldiako? - Jesusen aldiako. Ik. Irrinkaxketan*
 aldi iz.: *Aldiyen bein jo txalai, bestaldeá fan be 'Ez dadin joan beste aldera'*
 ale iz.: *Gaztain-ale, gari-bikor, babatxui-bikor*
 alkar etorri ad.: *alkar etorri*
 almiente (Etxarri) iz.: *Ik. buruzai*
 altsai iz.: *Altsaiek: bestendako, askondako lan iten dainak. Badia "auntzaiek", "baizaiek", "txertxaiek". Ik. BAP, han argitaratu zen altsai*
 Áma Bérjinia Abuztukuá
 Andra Maria/Mai Abuztuko (Etxarriarrek)
 antzu adj.: *Antzu: ernaién kontrariuá. Urde ume-aziya antzu dago guaindo*
 antzutu ad.: *Garaiya da antzutzeko urdiá, txerrikumak kendu ber datzau*
 aparneka iz.: *Aparnekia. Ik. illarre-sulso eta urri-ziza, eta sulso BAP-en.*
 Ziza motak dira
 apika adb.: *Apika 'aurki, beharbada' (Jesus nire anaiak aitari entzuna amari esaten)*
 apo iz.: *Txerri arra*
 apotei iz.: *Apuá don etxiá*
 aran iz.: *Etxarri-Aranaz (-z), arana 'basarana' jan da miya latz*
 ardi adj.: *Txerri ardi (urde ardi, txerrikuma ardi). Emiek dienak denak. Ik.*
 ordots
 argisentia iz.: *Eguna argitzen asten dan garaiyén. Ik. ilunabar*
 argitze iz.: *Argitze ondoko belar eske ta. Patatak urakín. Aragia kiskalik*
 (Aitaren hitzak, janarekin ez konforme)
 arkatila iz.: *Kutxan don kaja txiki bat*
 armaska iz.: *Bargagaingo arri aundi-zabalak, iya mendi (Urbasa) puntan*
 arrano iz.: *Aragi ustela jaten dena. Aundi-aundiya da*
 arrasto iz.: *Ura fateko bidia*
 arrastu iz.: *Nork in tu arrastu oiyek? ('tachaduras', erdaraz)*
 arren izord. 'haren': *Guria (gure txerria) arren -eskuizkribuan azpimarraturik -rr- bikoitza- onduen aundiya zan*
 arrontza-leku iz.: *Oiluak arrontziak dekatzain lekua*
 artakozkor 1951 iz.: *Sartu zain 'zioten' artakozkor bat. Ik. Axerko ta Otxoko*
 artamotxak iz.: *Artaburu txikiek, porketan jartzen ez diranak*
 asetu ad.: *Lurra asetu arte urakin*
 asko adb.: *Gazte asko il zan akura*
 askotaldiako 1951: *Askotaldiako. Ik. Irrinkaxketan*
 astozai iz.: *Gatza ta ekartzeko*
 asura iz.: *Asuria da urak, ur asko etortzen danien, ekartzen tuen ondarrak. Baztarretan eta zumartetan eta gelditzen da askotan: lurra, aria eta... Oharra. Ez da basura*

- 'at izord.: Iruroindako patu ber dot best'at*
ata ad.: *Ok erreik de oneskió, áta ín ber tut. Ziorditik atata... Patatak sartu ta ata. Naguek erein eta ekarri*
atai iz. *'atari': Ataia ixtazu. Ik. ata-zulo*
ata-zulo iz.: *Katuek eta oiluek eta atatzeko ataiyek dekan zulua*
ateri adj.: *Ateri do, baya beazuna do. Ik. beazun*
atxilinbokan adb.: *Atxilinbokan ibili 'Tapar ojos con boina y pillar a otros'; erdaraz, 'a la gallina ciega'. Ik. kuriketan ibili, eta Azkuen atxillo*
atxilipurdikan adb.: *Atxilipurdikan ibili 'Manos y pies en el suelo y vuelta de campana'. Ik. Azkuen atxilipurdi*
atzeaur iz.: *Atzeaurrák ín, soruen akaberák trabesien makinatu*
atzekalde iz.: *Urdiek ín tu bi aundi atzekaldez*
auntzai iz.: *Ik. altsai*
auri iz.: *Sarri do auriya!*
aurki adb.: *Jenaro da aurki. Ik. Azkue*
aurrekoa iz.: *Batak besteari diosala etzionean esaten, batak: -"Aurrekoa non dok?", ta besteak: -"Itxuak eamaten dok aurrekoa"*
Auskadi iz. *'Euskadi': Auskadi (Nire aita zenari entzuna)*
auskea/auskera iz.: *Auskeaz ai dia. Auskeriá da gure izkeriá. Ik. "euskiaz"*
Axerko ta Otxoko kontuan. Oharra. *Nire arrebak ere "euskiaz" esan dit 2005eko otsailean, eta beti horrela esan omen du*
auskealdun iz. *'euskaldun': Auskealduna, baina Euskalerria*
Axerko 1951: Axerko, nun ago? *Ik. kontuetan Axerko, nun ago? Oharra. BAP-en ere Axerko eman genuen, eta gure arrebak ere horrela esan digu (2005eko urtarrilean)*
axuki iz.: *Axukiya eman gindan aitai*
azi 1951 ad.: *Azi 'handitu'. Ik. kontuetan Idargiya*
azpi-jan iz.: *Lurrá eta azpitik kendu, ta bota iten da etxia*
aztu ad.: *Kaxeteruek ezteka aztuik. Azten. Ik. akordatu*
azundu ad.: *(Urdia) ezta azundu, ezta gelditu ernai Ik. bueltatu*

B

- ba junt.** *Txerrikumak jaten asik balege!*
bai 1 iz. *'behi': Baiya, bai bat*
bai 2 iz. *'bahe': Baya ta galbaya bat. Modu askotakuek dia: 1. Larru-baya: Garia errotán iotzeko bezela jartzeko, zikinik be jartzeko. 2. Pasa-baya: Garia-ri, indabai, agotza ta indabién kaskala kentzeko. 3. Zaldale-baya: Zaldaliá errotan iotzeko bezela jartzeko*
baiko adj. *'bageko': Ik. aldapa*
baindo junt.: *Sekula baindo garbio do urde ói*
baitan postp.: *Esan dot naure baitan, bai*
baiya junt.: *Eztakit autzi doten, baiya*
baizai iz.: *'behizai'. Ik. altsai.*
barre falso: *'De guasa', gaztelaniaz*
baxaka iz.: *Basurdién umiá ta basurdiekín azúndu dan urdién umiék*
baya junt.: *Peskaua badekagu biarko, bai; baya... eztakit*
be 1 junt.: *Erremolatxa pila ez ikutu, bota be, juxtu-juxtua do-ta. Jan tazuluixto, katuak jan be 'katuak jan ez ditzan'. Zuk kaso ín patatai, irakiten asten*

dienien gainez in be. Aldiyen bein jo txalai, bestaldeá fan be. Zuiyen erditik fateko, zuitik bera bota be

be 2 postp.: *Txerrikumak janik de: jan dei. Urdia do jan be, urdia do jateko: urdiak eztau jan. Bai, yon be yongo da! Afáldu be zon*

bea 1 adj. 'bera': *Etxetik ataezkio, ankan loya bea're ekartzen da*

bea 2 1951 junt.: *Bea 'baina' munak atatzia geolgio zala. Ik. Axerko ta Otxoko*

beatz iz.: *Denbora beatza, elur beatza. Ik. gogor*

beaztu ad.: *Beaztu, elurra urtu*

beazun iz.: *Denbora beatza don garaien, elurra urtzen da, ta beazuna do: urtzen ai dan elurra. Ateri do, baya beazuna do. Ik. gesal*

bein adb.: *Ik. aldi*

bela iz.: *Egazti aundi-aundiya 'buitre', gaztelaniaz*

ber iz. 'behar': *(Txerriek) emanik dekai, eman berra. Iruroindako patu ber dot best'at. Ok erreik de oneskió, áta in ber tut. Beti eman berrién da beti aztu. Obe berrez yan da an il. Asi nintzan lana in berrien. Ura (autobus) batien faten ezpada, bestien fan in ber da. Asi zan Axerko jan berrien 1951. Ik. Axerko ta Otxoko*

berdoztu ad.: *Edozein gauza, irikiten asi ta bela, yosi be deila, iten badia oztu, iten dia berdoztu, ezta yosten. Azelgia, azia ta, ur otzien jartzen badia, ezta yosten, berdoztu iten dia*

beroki iz.: *Etxe oni berokiya falta zaiyo*

beste izord.: *Bestenetan: besten larretan eta. Bata bestiengandi bizi(tzen) ga denok, guregandi bizi da ori*

bestenekuen adb.: *Bestenekuen 'bestela'*

bi: *Biyek, biek. Ik. zenbakiak sarrera*

bide 1951 iz.: *Bidien zozila. Ik. Axerko ta Otxoko*

bidiako iz.: *Bidiáko 'bideko, biderako'*

biejun 'bejon': *Biéjun déizula, biéjun déikela, biéjun déinela 'zorionak zuri, hiri'. Oharra. 1965-1969 artean hartua. Ik. bejon hurrengo zerrendan*

biko: *Bikuék, bi madi, 2,50 zentimo. Ik. madi*

bikor iz.: *Gari-bikor, babatxui-bikor. Ik. gaztain-ale*

bisuts iz.: *Elur-bisuts, elur sekua, aizeak dekana bueltakan*

bixi-bixi: 'bizi-bizi'. Halako bixi-bixi ibiltzen da, sua bixi-bixi dago, etab.

bizar-labana iz.: *bizarrá kentzekó kutxiluá da bizar-labaná*

bolakan adb.: *Txoria furrakán diyuá, bolakán diyuá*

borobil adj.: *Ik. ttopor*

bota ad.: - *Bota dazu gatza oni? - Bai, bota dat*

bueltatu ad.: *(Urdia) bueltatu in da: ernai gelditu eztana, ta berriz irausi jarri da. Ik. azundu*

buru iz.: *Gutxi jaten zen bere burutik 'berak nahi-ta'*

buruzai iz.: *Erriko mandatuek eta in, festetakuen ardua partitu plazan jende guziei, jornalik be. Bi gazte ezkonberriyek izaten zien. Almienteik etzon Baikaikun, Etxarrin bai. Alkatiek esaten zauena, iten zain*

D

deseroso adj.: *Emendik Loyolará fateko deserosó do*

diru iz.: *Diru osua. Ik. oso*

Domi Santu Eguna: *Domi Santu Eguna. Domi Santuak dia. Domi Santutan*

E

'e part.: *Nik eztát bota ezer'é 'ere'.* Ik. **ezerl'e**

eausi iz.: *Éausi (---) batzuk ata-tú!* 'Garrasiz ibili da'

edarra iz.: *Edarra bat buruen artu eta iturrira ur eske*

edozein: Ik. **yozein**

eduki/euki ad.: *Esanik dekau. Oharra. Dekau* eta horren antzeko adizkien partizipioa ez dugu aurkitu gure datuetan Bakaikun. Horren ordez *ibili* aurkitu dugu: "Bai, *ibili* zen 'zuen' kotxe bat", "Goséik eztáu *ibilko*"

egun 1 iz.: *Astiek zazpi egun dekatza*

egun 2 iz.: *Gau ta egun*

egun 3 iz.: *Egun 'ehun'*

egun 4 iz.: *Euntzaliek iten den telia*

eize iz.: *Éizia fango da katua*

eleizkizun iz.: *Eleizkizuná dekaú bi urtién: érresponsó ta olatiá len, ofrendiá guai.* Ik. **elizkizun** 2. zerrenda edo hiztegian

elur iz.: *Elur musti: elurra iten ai danién. Elur beatz. Elur gesal.* Ik. **beatz** eta **gogor, beazun, gesal** eta **musti**

emakume iz.: *Emakume ta gizaki.* Ik. **gizaki**

eman ad.: *Eman berra.* Ik. **ber.** *Txalai ematen dau esenia. Jan eman.* Ik. **jan**

emen adb.: *Askôn astuá otsuék jan emen zen*

entenga iz.: *Puntapaxa aundiye*

erel'e part.: *Askotan esan dot eta berriz ere esanko dot, denok askotan itz bat esaten degunien, ez baginduke esanko, askoz obe litzakela. Zerbait ikus don? Ez-tot ikusi ezer'e.* Ik. **iyor**

erein ad.: *Nagiek erein eta ekarri. Patatak sartu ta ata*

ergi iz.: *Ergi ta zekorra.* Ik. **txal**

erlebelar iz.: *Larreko belár txarrá, beste belarra galtzen (galdu iten) dau*

ernai adj.: *Urde ori ernai do*

errapatu ad.: *Errapatu naiz 'ohartu naiz'*

errape iz.: *Errape aundiya deka bai orrek.* Ik. **erro**

errau iz.: *Errau aundi, 100 pertika 1000 metro. Errau txiki, 72 pertika 900 metro.* Ik. **pertika**

erre ad.: *Arrontzia nai dezu erreta o tortillan?*

errei iz.: *Erreiyetako mina deka, zekan atzo. Gaur ezteka, ezekan atzo*

erreinu 1951 iz.: *Idargien erreinu(b)a 'errainua'.* Ik. **Axerko ta Otxoko**

errezatu ad.: *Errezatu aitandako*

erro iz.: *Erro aundiya deka bai orrek. Berdin dia erro ta errape*

erro-mutur iz.: *Urde orrek 14 erro-mutur dekatza*

erro-sagar iz.: *Erro-sagar aundiya deka urde orrek (ez erro aundiya).* Ik. **es-tutu**

ertitz iz.: *Bietza materiaz beteik jartzen da 'panadizo', erdaraz.*

eske postp.: *Argitze orduko belar eske ta. Oharra.* Ez dira sinonimoak *eske* eta *bila*. Joaten zara *asolbiziua, belar, mugarrak, ur eske*, non lortu ditzakezun edo non dituzun badakizulako; baina joaten zara *ziza bila*, badakizulako non

izan ohi diren eta non izan daitezkeen. Larre edo belardira joan zaitezke *belar eske*, baina *ziza bila*

eskribau iz.: Erdaraz, 'escribano'

esku-oyal iz.: *Sekatu eskubek eta musuba esku-oyalakin*

eskupe: *Gurelque ataien eskupe do: epela, aizeik ez, otzik ez. Oharra. Ik. MK arrebak 2005eko otsailean emandako adibideak: Fan ber ga pareta baztar batia, an eskupe yonko da. Aizieik yotzen ezten lekuben do eskupe*

esne iz.: *Bakaiku, ez esne ta ez kaiku*

estali ad.: *Burundesa estal da*

estalpe iz.: *Estalpe. Ik. teilape*, sinonimoak dira

estutu ad.: *Txerriari iten zaiyo errua estutu. Ik. erro eta errape*

etorri iz.: *Etor zien*

etxarte iz.: *Etxarte* 'etxe arteko tartea'

euskia 1951 iz.: *Euskiaz ezakielako. Ik. Axerko ta Otxoko*

ezkatz iz.: Ik. **iyortzi**

ezkonberri iz.: *Ezkonberriyek. Ik. buruzai*

eztai iz.: *Txorien eztaia: Egurrak txispak botatzen denien. Ik. txori*

ezur 1951 iz.: *Ezurak ausi zain. Ik. Axerko ta Otxoko*

F

fan ad.: *Arbolak aundiyo dozi, aunditzen ai dia. Ura (autobus) batien faten ezpada bestien fan in ber da. Fan zien, zozila, ziyuenak. Ik. Axerko ta Otxoko 1951*, azkeneko hiru formak hor baitaude

furrakan adb.: *Txoria furrakán diyuá, bolakán diyuá. Txoriek furrakán ibiltzen diá. Ikus dot txori bat furrakán. Ikus nen txori bat furrakán. Ik. bolakan eta ibaikan*

furratu ad.: *Txori bat furratu da*

G

gain posp.: *Jakinan gainien patzeko esan. Ik. jakin*

gaineko adj.: *Gaineko eguna: funtziyo 'hileta' egunetik urrengo jaiya (domeka)*

gainez in ad.: *Tapatzen badiá, gainez iten dai (pertzak)*

gaizkitu ad.: *Ori gaizkituko balitzake, akabo*

gaizto adj.: *Gaiztuo. Ik. sagarmin*

galbaya iz.: *Baya ta galbaya bat*

galtza iz.: *Zure galtzok sekatuik de. Galtza beltzak*

ganbelatu ad.: *Olák ganbelátu diá, makurtu*

garagarril iz.: *Garagarrilien eguna bero, goizién intza donien/danien*

garbitasun iz.: *Garbitasun(ak) 'agiriak' (erdaraz, 'documento(s)' eta Baikaikun, 'limpieza(s)')*

gari iz.: *Gari kolore*

gaztanbera 1951 iz.: *Otxoko gaztanberaz ase zan. Ik. Axerko ta Otxoko*

gelditu ad.: *(Urdia) ezta gelditu ernai. Ik. bueltatu*

geol/gio 1951 'gero' adb.: *Ta geol/gio. Ik. Axerko ta Otxoko*

gesal iz.: *Elur gesalak de orduén (beazuna donien): elur puskak*

girten iz.: *Ago ta girten: aizkora, kutxilu...*

gizaki iz.: *Gizaki asko zon elizan. Nola gizakiya zeran, patata geiyo patu.*
Ik. emakume
gizendu ad.: *Zail gizentzekuek, erraz gizentzekuek*
gizenkor adj.: *Gizenkor: guai txerriek erraz gizentzekuek diá*
gogor adj.: *Elur gogor: "beatza" da kontrariua. Ik. elur musti, beazun eta gesal*
gose iz.: *Ez dekai esene-goseik txerrikumok*
gurdi iz.: *Zortzi gurdi gaztaina*
gure/gue adj.: *Gure/gue ataien eskupe do. Ik. eskupe*
gutxi adj.: *Gue denboran etzon olako gauzaik ta gutxiokoik er'ez. Dan gutxiena dala're zikina, zegatu iten da tubua*

I

ibai 1951 iz.: *Fan zien ibaira. Ik. kontuetan Axerko ta Otxoko*
ibaikan adb.: *Arrayek ibaikan ibiltzen diá. Ik. txoriyek furrakan eta cfr. BAP ibaika*
ibili ad.: *Bai, ibili 'eduki, izan' zen 'zuen' kotxe bat. Góseik eztáu ibilko. Ibiliyez ikasten da*
idar beltz: *Idar beltza: erein be etortzen da garitan da; zikina da. Ik. idar zuri*
idar zuri: *Idar zuriya: ereinda etortzen da; jendiék jaten du au. Oharra. Ez dau, baizik du artu genuen; baina arreta ezaz izan daiteke*
ikatu ad.: *Nik ikatu 'benzitu' dat bestiai*
ilada iz.: *Ilada 'hilerá', erdaraz: Cf. Azkue*
ilarre-sulso iz.: *Ilarre-sulso: Udatzenién/Udazkenién jaiyotzen diá, zuri xamarrak. Oharra. Ilarre ala ilarra? Ik. illarre-sulso*
ilberri 1951 iz.: *Ilberriko ostia/elia ilondo. Ik. kontuetan Idargiya*
illarre-sulso iz.: *Illarre-sulso: ziza klase bat da. Ik. aparneka*
ilondo 1951 iz.: *Ilondoko ostia/elia ilberri. Ik. kontuetan Idargiya*
ilunabar iz.: *Ilunabarra: eguna iluntzen asten danién. Iluntzen dan garaiya*
ilundu ad.: *Ilundu: ilunabarrien*
iluntze iz.: *Iluntze orduko etorr'adi*
in ad.: *Ayekin aide iten dia*
indaba 'babarrun' iz.: *Naiko gatza bota dazu indabairi?*
iper-laino iz.: *Iper-lainua*
ipertu ad.: *Gaur eztu ipertu. Ik. aizetu*
irausi ad.: *Urdia irausi do, fan ber dau apuengana, apuekin ibiltzeko*
iri ad.: - *Iri 'ideki' zan atayoi. - Iri dot. - Zabal zan atayoi. - Zabaldú dot. Estal dot. - Iri zazu. - Iri dot. - Zabal zazu. - Zabaldú dot. Estal zazu! Estal dot*
irikin ad.: *Gutxi irikin dei indabaxal ok*
irrinkaxketan 1951. Ik. *BAP* eta kontuetan **Irrinkaxketan**: *Mutiko bat gurdiaren ardatzaren (andaitza, Bakaikun) puntan jartzen da eta beste batek edo batzuek, gurdiari atzetik eragiten diola/diotela, gora eta behara ibiltzen du/dute*
iru adj.: *Irurak, iruak, iruroindako. Ik. zenbakiak sarrera*
isipula iz.: *Isipula 'erisipela', erdaraz*
itsasi ad.: *Gripe garbi pasatu be zekan batekin lo in zela, eta etzakiola itsasi*
iturmendiar iz.: *Iturmendiarra. Ik. urdintarra*

iyor *adj.*: *Intxorra eztau iyork mozten. Ikus dezu iyor'e? Ik. ezer'e*
iyortzi *ad.*: *Iyortzi zapatak ezkatzien zikina kentzeko. Iyortzi eskuek/pate-rak oyal batekin, sekatzeko*
izan *ad.*: *Berak esan izan dau 'Ha solido decir'. Ayekin aide dia. Ik. in*
izen baiko *adj.*: *Etxien yoten dia izen baiko lan asko*
izotz *iz.*: *Izotz beltza: Azak eta beltz jartzen dia*

J

jakin *ad.*: *Jakinan gainien patzeko esan. Ik. gainien. Merkiore badaki yoten peskadillak*
jan *ad.*: *Orrék eztáu ogík jatén: Dagola (traste 'janzki' zar batek...). Maria Kruzek jain dau. Ik. yan 2 'edan'*
jan eman *ad.*: *Ganaduei okuluen jan eman. Ik. janazi*
janazi *ad.*: *Baiek larrien janazi*
jarain *ad.*: *Urai jarain*
jarein 1951 *ad.*: *Jarein zain kozkorrai. Ik. Axerko ta Otxoko*
jasaille *iz.*: *Jasaile 'andero', erdaraz*
jeitxi *ad.*: *Baiyak jeitxi 'jetzi'*
jeski txiki *iz.*: *Jeski txikitan ibili: gauza pisubak yateko*

K

kabitu 1951 *ad.*: *Ezin kabitu ur guzia. Ik. Axerko ta Otxoko*
kadena *iz.*: *Kadenia 'parias' bota dau*
kaiku *iz.*: *Bakaiku, ez esne ta ez kaiku*
kaka *iz.*: *Kaka zarrak ez nastu, usai txarra botatzen dai-ta*
kantatu 1951 *ad.*: *Kantatzen zan 'zion'. Ik. Axerko ta Otxoko*
kazula *ad.*: *Erdaraz, 'cazuela'*
kendu *ad.*: *Urai kentzea etorriko da. Baiyai kendu larre ortatik. Oso esene gutxi zekan eta ezin ken zakion geiyo*
kendu *ad.*: *Radiua kendu*
kilo *iz.*: *Bi kiloko urra, intxorra*
koilara *iz.*: *Koilara 'koilara'*
koloma *iz.*: *Zurakin da inik don paretiá, paretién erdién o léku askotán zurák nastutá dekatzaná*
kolore *iz.*: *Gari koloriá deka*
komulgatu *ad.*: *Komulgatu naiz*
kopeta 1951 *iz.*: *Kopetia gaztanberiekin untatu zen 'zuen'. Ik. Axerko ta Otxoko*
kozkor 1951 *iz.*: *Jarein zain kozkorrai 'artakozkorrai'. Ik. Axerko ta Otxoko*
kuku gelditu *ad.*: *'Quedarse un árbol cortado apoyado en otro, evitando así la caída'*
kukubiko *adb.*: *Kukubiko jarri 'agacharse en cuclillas'*
kuriketan *adb.*: *Kuriketan ibili. 'Juego de niños: uno se pone de espaldas, mientras los demás se esconden. Tiene que pillar a otro, que hace sus veces'*
kurrilu *iz.*: *Kurrilu asko pasatu dia*
kuzkurtu *ad.*: *Kuzkurtu 'uzkurtu, makurtu'*

L

- laiyotila** iz.: *Laiyotila* ‘leihatila’
lanbide iz.: *Lanbide asko do etxe batien*
larraina 1951 iz.: *Larraina bat. Larrainá. Ik. Axerko ta Otxoko*
lasatu ad.: *Zapatak denborarekin iten dia lasatu*
laso adj.: *Urde laso ‘flojo’ bat. Urdia da lasuó. Bestiék dia estuó, ezta aunditzen*
lau adj.: *Laurak, lauak. Ik. zenbakiak* sarrera
lauko iz.: *Laukuék, lau madi: 5 zentimo. Ik. madi*
lege iz.: *Afai-bendu lege bat in zein: al dan bezelakua, izena bakarrik dekanana*
leitu ad.: *Leituta dakit ori*
len adb.: *Ori jan zuk, oztu baindo lenuó*
len-baindo-len adb.: ‘Lehenbaitlehen’
leneko adj.: *Leneko kostunbria da. Ik. lengoko, lenoko*
lengo adj.: *Lengo legia. Ik. lengo eta lenoko, hurrengo hitza*
lenoko adj.: *Lenoko legia, zopak eskubekin ausita, kutxiluekin ebagi berrien ogiya*
liyo iz.: *Liyua. Ik. txarrantxa*
lodi adj.: *Ik. ttopor*
lotoki iz.: *Lotoki ‘loki’*
lotsaiya in ad.: *Lotsaiya itia fan nintzan*
lo-zurrunga iz.: *Lo-zurrunga bat: jendiék, lo donién, lo iten den garayen iten den otsa*
lurmen iz.: *Lurmen. Elurra urtzen danean, elur artean ageri diren lur pus-kak dira lurmenak*
lurmenu ad.: *Lurmentzen ai da*
lurpeko iz.: *Lurpeko ‘satorra’: Hitz hau ez da erabiltzen*

M

- madi** iz.: *Madiyá. Amar madi, amabi madi, amasei madi, emezortzi madi. 20 madi: sueldo bat; 22 madi, sueldo ta bi madi (: bikua); 24 madi, 3 zortziko; 26 madi, 3 zortziko ta bikua. Ik. biko, lau, zortziko*
makilintzaile iz.: *Sekulako makilintzailia zan aita*
makina iz.: *Makina bat denbora yon da Iruñan akura*
makinatu ad.: *Ik. atzeaur*
makitu ad.: *Maki jarri da, makitu in da. Txerrikumia makitu in zan*
makur iz.: *Makurriá asi ezkió ‘a las malas’. Ik. onez onién*
mantelin iz.: *Buruen jazten dana, eliza fateko*
matagin iz.: *Mataginak lau dia. Ik. agin eta ortz*
materia iz.: *Ik. ertitz*
mato iz.: *Mato asko. Matuekin iten da gaztaiya*
mesede iz.: *Alkarri mesede iteko ge*
meza iz.: *Meza. Ik. nagosi eta txiki*
min artu ad.: *Min artu ‘zauritu’*
miru iz.: *Gora ta bera ibiltzen dana*
moztu ad.: *Intxorra eztau iyork mozten. Ik. BAP, 321 sarrera*

mun 1951 *iz.*: *Esan zan Axerkoi munak* ‘muinak’ *ata zatzaila* ‘zizkiotela’.
Ik. Axerko ta Otxoko
mundu 1951 *iz.*: *Gu ta mundu guzia salbatzeko*. **Ik. kontuetan Axerko,**
nun ago?
musti *adj.*: *Elur musti*. **Ik. elur**

N

nagosi *adj.*: *Meza nagosiyá da*. *Meza nagosiá niyuá*. **Ik. meza**
naure/nere *adj.*: *Esan dot naure baitan, bai*. *Nere aman ama*
 nolapait junt.: *Nolapait ez gindubén eréin, eztáu bildú*

O

o junt. **Ik. erre:** *erreta o tortillan?*
obe 1 *adb.*: *Obe*. **Ik. ber**
obe 2 *adj.*: *Obe da ero, baindo bero* ‘Ande yo caliente y ríase la gente’, *erdaraz*
oi 1 *adj.*: *Sekula baindo garbio do urde’oi*
oi 2 *ad.*: *Oi’zu ogiya!* (nik emana). *Eskerrik asko, eztot nai*. **Oharra.** Erka-
 tu honako honekin: *Artazu ogiya!, or dekasu arremayuen*
oilarrarena *iz.*: *Arrontza orrek oilarrarena deka*
ok *adj.*: *Ok erreik de oneskió, áta ín ber tut*
okulu *iz.*: *fixtukan ibiltzen zan okuluen*
olamai *iz.*: *Olamai*. **Ik. ore eta oratu**
ondu *iz.*: 1. *Arramatik bera ta zainetik gorakua*. 2. *Arbola bota ta zainetik*
gorakua
oneskio *adb.*: *Ok erreik de oneskió*
onez onien *adb.*: *Onez onién* ‘a las buenas’. **Ik. makur** sarreran *makurriá*
onezko *adj.*: *Ez da onezkua katu oi*
ongarri 1951 *iz.*: *Ongarria*. **Ik. kontuetan Idargiya**
ongi *adb.*: *Ongi jantzik zon*
ongitu *ad.*: ‘Sendatu’. **Oharra.** Baina *sendatu* ezta esaten
oraitz *iz.*: *Oraitz* ‘calostro’ *lodiya*
oratu *ad.*: *Irina ta ura ta mentzagiya nastu ta oratu ogiya*
ordaiz-egunak *iz.*: *Ordezkuéz emandako egunak*
ordezko *iz.*: *Aldeko etxetik ordezkuez ekarri ogiya*: ‘a ordeá’ Nafarroan gaz-
 telaniaz
ordots *iz.*: *Txerrikuma ordotsa (apua’re ordotsa da); baita’re osatua, kapa-*
tua. *Arrak dienak denak*. **Ik. ardi**
ore *iz.*: *Ogiya iteko*
ori *adj.*: *Ori jan zuk, oztu baindo lenuó*
orregaiti junt.: *Orregaiti Axerkoi paliza bat eman zain 1951*. **Ik. Axer-**
ko ta Otxoko
ortz *iz.*: *Ortzak 8 dia, mataginak lau dia, aginak 20 dia*. **Ik. agin eta ma-**
tagin
osatu *ad.*: **Ik. ordots**
oso *adj.*: *Diru osua, 500 pezta*. **Oharra.** Erdaraz, “número redondo”: **Ik. piko**
ostiko *iz.*: *Ostiko*
ots *iz.*: *Ots’ona! Ura otsa! Ots’ona in zena!*
ots-ein *ad.*: *Ots-ein dat etortzeko. Zortzitan ots-ein*

otso-luma iz.: *Otso-luma, txorikumen lenbiziko luma o ilia*
Otxoko 1951: *Axerko ta Otxoko fan zien*. Ik. kontuetan **Axerko ta Otxoko**

P

pagatx iz.: *Pagatx, belar bat* ‘clase de trébol de flor roja y de hoja más grande’

paliza 1951 iz.: *Paliza bat eman zain*. Ik. **Axerko ta Otxoko**

pasatu ad.: *Trena pasatu zakiten (neri), bi tren pasatu zakitzaten (neri)*.
Zuri trena pasatu zakizun

pater iz.: *Pater* ‘plater’

pe postp. ‘be, bage’: *Larru-baya da garia zikinik pe jartzeko*

pertika iz.: *10 o 12 metro*. Ik. **errau aundi eta errau txiki**

pezkin iz.: *Pezkina, pertzak eta zartagiek eta konpontzen zituben, gaztelaniaz* ‘calderero’

pikatu ad.: *Segia pikatu, segarriekin zorroztu*

piko iz.: *Piko: diru osua bialtzegaiti, pikua ez bialtzegaiti*

poto iz.: *Potudá* ‘pote’, erdaraz

pregu iz.: *Preguek asi dia*

premiyatu ad.: *Ataiya premyatuik do: ezin zabaldu, ezin itxi*

presaka adb.: *Ain presaka jaten dau, belaxe jaten dau dena*

puntxon iz.: *Puntxon, zatak zulatzeke*

S

sagarmin iz.: *Beti gerra ematen etxien, sagarmina baindo gaiztuo*

salbatu 1951 ad.: *Salbatzeke*. Ik. kontuetan **Axerko, nun ago?**

saltzale iz.: *Saltzalia, saltzen dena* ‘duena’. Ik. **yostuna**

sarjo adj.: *Tela sarjo bat, zulo aundiyak dekatzana, pulpa yateko ta*

sarri adj.: *Sarri do auriya! Auri asko ai da*

sartu ad.: *Patatak sartu ta ata. Naguek erein eta ekarri*

sei adj.: *Seirak, seiyek*. Ik. **zenbakiak sarrera**

sekatu ad.: Ik. **galtza**, eta kontuetan **Idargiya** 1951

sekula adb.: *Sekula baindo garbio do urde ói*

senide iz.: *Txerri ok senide dia (ardi izan da ere)*

sinistatu ad.: *Sinistatuik no egia esan dezula*

sobre adb.: *Lengo fabrikan iten dau sobre lana. Ala're guaiquén irauten dau*

su 1951 iz.: *Su(b)a iteko*. Ik. kontuetan **Axerko, nun ago?**

sueldo iz.: *Sueldo, 20 madi. Oharra. Errial bat?*

sugur iz.: *Sugur* ‘sudur’

T

tarrakan adb.: *Tarrakan (arrastakan) pasatu zakiten txalax ankia*

teilape iz.: *Teilape*. Ik. **estalpe**

tintilikan adb.: Ik. **txintxilikan**

tirizia iz.: *Tirizia* ‘ictericia’, erdaraz

tranpa iz.: *Kanpoko ataiyek dekan laiyo txiki oi esaten zaiyo tranpiá*

trebe adj.: - “*Trebe dana, mugara!*”, *bakaikukuek iturmendikuei*

ttopor adj.: *Ttoporra, txiki, borobil ta lodi dana: jende, animali, planta, gauzak*. Ik. **Txopordi toponimoa**.

- tubo** *iz.*: Ik. **zikin**
txal *iz.*: *Ergi ta zekorra*
txapitola *iz.*: *Txapitola bat, teilatuta gainien dot laiyua*
txarrantxa *iz.*: *Liyua konpontzeko, ilia orrazten dan bezela, liyua ere orraztu txarrantxiek*
txastaina *iz.*: *Txastaina, tarratilu txiki moduko bat*
txerri *iz.*: *aundi-txiki, ar-eme*. Ik. **urde**
txerrikai *iz.*: *Txerrikai, zikinkai aundia*
txerrikuma *iz.*: *Txerrikumak*. Ik. **be**
txerrikumaldi *iz.*: *Bi txerrikumaldi in tu 'camadas'*
txertxai *iz.*: *BAP-en, bai*. Ik. **altsai**
txiki *adj.*: *Meza txikiá*. Ik. **nagosi**
txilkor *adj.*: *Elur txilkorra: elur borobil txiki batzuek, denbora gogorrakin ezin amukela in*
txindila *iz.*: *Txindila 'dilista'*
txingurri-pila *iz.*: *Txingurri-pila 'hormiguero'*
txingurritu *ad.*: *Besuek txingurritu iten dia karretiluaren dardarakin*
txintxilikan *adb.*: *Gerrikoa gerrien bildu ta punta txintxilikan*
txoltxa *iz.*: *Intxor berdiek iten dai txoltxiek, biatzak zikindu*
txorien eztaia *iz.*: *Txorien eztaia*. Ik. **eztai**
txostamarka *iz.*: Ik. kontuetan **Axerko, nun ago? Oharra**. Nire arrebak eta anaia batek diotenez, horrela da, eta ez guk *BAP-en eman genuen txotxamarka*. Ik. kontuetan **Axerko, nun ago?**

U

- ume egin** *ad.*: *Ume egin 'parir'*. Ik. **in**
umealdi *iz.*: *Lenbiziko umealdien in zituben amairu*
ume-azi *iz.*: *Urde ume-aziya antzu do guaindo*
umedun *iz.*: *Urde umeduna, txerrikuma duna. Urde umeduna il in da*
undatu *ad.*: *Undatu zan etxe bat atzo*
untagarri *adj.*: *Txerrien eta janariari botatzen zaizkio untagarri erremolatxa puskak, nago eta abar, gustagarri izan dadin: Arrebak 2005eko otsailan emandako azalpena*
untatu 1951 *ad.*: *Untatu zen 'zuen'*. Ik. **kopeta**
urdai 1951 *iz.*: *Ilberriko urdaia...* Ik. kontuetan **Idargiya**
urde *iz.*: *Aundiyek bakarrik: ar-eme. Urde ori ernai do*. Ik. **ernai** eta **txerri**
urde/txerri *iz.*: *-Lau urde dekatzau. -Eta ura (?)? -Ura (?) ezta urdiá, ura (?) txerri gaztiá da*
urdintar *iz.*: *Urdintarra, urdinakua. Urdintarra jentila, arrua r'erdiko bonbila*
urri-ziza *iz.*: *Urri-ziza: Ziza mota bat da*
uste 1 *ad.*: *Ez izan da bai uste: Arrua 'presumido' danaz esaten dana. -Nún do pozalá? -Aiták us'ót dekalá. Ustez eztot ikutu: enaiz errapatu*
uste 2 *iz.*: *Ustiek alderdi ustela dau*

Y

- yan 1** *ad.*: *Obe berrez yan 'eraman' da an il*. Ik. **sarjo: yateko**
yan 2 *ad.*: *Maria Kruzek yain 'edanen' dau*. Ik. **jan**. *Fan zien ibaira ura yatia. Yan ber zain 'zuten' ibaiko ur guzia. 1951*. Ik. **Axerko ta Otxoko**

yon *ad.*: Merkiore badaki yoten (peskadillak). Etxien yoten dia izen baiko lanbide asko. - Bajon? - Bai, yon be yongo da ('yongo' hartu genuen, baina...)
yosi *ad.*: Yosi 'egosi' be
yostun *iz.*: Yostuna, yosten dena 'erosten duena'. Ik. saltzale
yozein *izord.*: Yozein aldetara fateko

Z

zaborrei *iz.*: Zaborreiyak indar aundiya deka. Zaborrei asko do sóru ontán
